



01 GOGOETA TEORIKOA

>>>

HIZKUNTZAREN ARABERAKO KULTURA

Joxe Manuel Odriozola

Euskara irakaslea

Helbide elektronikoa: izarrekoa@euskalnet.net

Euskal Herriko kulturen eta euskararen arteko hartu-emanak ezagutze-ko, kultura horien zer-nolakoak ezagutu behar genituzke aldez aurretik. Kulturaren kontzeptu jakin batek daukan zentzua eta esanahia ere ezagutu beharko genukeela dirudi. Izan ere, nekez jakingo dugu zertaz ari garen kulturen eta euskararen arteko harreman horietan, aldez aurretik kulturari buruzko definizio-zertzelada batzuk aletu ezean.

ETNOKULTURAREN ARRASTOAN

Bilatzen hasita ez genuke *kultura* kontzeptua baino kontzeptu zabal eta mugagabeagorik aurkituko bazterretan. Bere baitan txertaturik baitaramatza mugagabetasunaren tasun eta keria guztiak. Zehazgabetasunaren keriak gainditze aldera, beraz, *etnokulturaren* esparruan kokatu nahi nuke, hasteko, gure jardunaren xedea. Ezarri diogun aurrezki horri esker, kulturaren zentzua esanahi zehatz baten eremura eraman nahi genuke: hau da, komunitate etniko edo historiko baten eskuak sortutako eta garatutako kultura-motaz mintzatu nahi genuke hastapen honetan.

Hori eta horrenbestez, zertan datza etnokulturaren auzi hau? Jadanik esandakoaren hariari jarraiki, jatorrizko herrien historian aurkituko

dugu kontzeptu honen iturria. Inperioen eta batez ere nazio-estatuaren aurretik datozen berezko herrien izaera definitzen du etnokulturaren kontzeptuak: hizkuntza, kultura, historia eta lurralde baten altzoan lorutako herri-identitateak izendatzen ditugu etnokulturaren bidez. Komunitate etnikoaren osagarri eta ezaugarri nagusiak aipatu ondoren, esan dezagun komunitate edo herri horiek ez dutela hasieran nazio-identitatearen kontzientziarik eta betekizunik. Naziotasunaren hazia eta gaitasuna beren baitan baldin badute ere, herri gutxik gainditu du munduan etnokulturaren fase historikoa nazio-identitatearen jabe bihurtzeko. Egungo estatuak berrehun inguru baldin badira, eta herri-komunitateak sei milaren bueltan baldin badabiltza, atera kontuak. Kultura eta hizkuntza etniko gutxik lortu dute nazio-hizkuntza eta nazio-kultura bihurtzea eta izatea.

Aldaketa historiko horien nondik norakoaren xehetasunetan sartu gabe, esan dezagun, besterik ezean eta hobe beharrez, honako hau: herrien arteko botere-asimetriak eta desorekak egungo berdinkeria-hondamendi honetara ekarri gaituztela, munduko etnokultura gehienetako etnozidioa eta glotozidioa eragin duen inperialismoa tarteko. Nabardura bat, hala ere: egungo estatu guztiak ez dira nazionalismo inperialistaren ordezkariak. Estatu batzuk, txikiak gehien-gehienetan, identitate etnokultural historikoen oinordekoak direnez, ez dago inolako kontraesanik horien jokabidean. Are gehiago: estatu horien nazionalismoari esker, mundua, homogeneizatorako eta asimilaziorako joera makurrean, nabarragoa eta askotarikoagoa da.

NAZIO-KULTURAREN HEGEMONIA

Etnokulturaz mintzo garenean, beraz, estatu modernoaren aurretikako kulturaz mintzo gara, nahiz eta egungo mundua etnokulturaz josita egon. Baina harako hark esan zuen bezala, Hegelek uste dut, historiarik gabeko herriak dira horiek guztiak. Ez dute historiaren barrena arrastorik utziko. Historia egingo bada, hortaz, estatuaren jabe egin beharko du nazioak, estatuaren botereak zabaltzen diolako komunitate etnikoari gizarte nazionala izateko aukera eta ohorea.

Aro modernoaren barrena sortutako estatuaren eskutik ekin zitzaion beraz kultura historiko berri bati. Kultura honen ezaugarrietan ere, etnokulturaren bezalatsu, hizkuntza, kultura, historia eta lurraldea izango ditugu osagarri nagusiak —erlijioa izan daiteke munduko zenbait herrialdetan beste ikur nagusi bat, gauza jakina denez—, baina, nolana ere, elementu-ezaugarri horien izaera eta jokaera errotik aldatuko da. Hizkuntzaren izaerak kohesio-indar ikaragarria bereganatuko du nazionalismoaren aroan, eta hizkuntza nazional horren ardatzean harilkatuko da nazio-kulturaren ehundura. Gauza bertsua gertatuko da historiaren eta lurraldearen izaerarekin ere. Nazio-identitate berri honen egitura osatzen duten elementu-ezaugarri hauen arteko dialektika

Euskal Herriko kulturen eta euskararen arteko hartu-emanak ezagutzeko, kultura horien zer-nolakoak ezagutu behar genituzke alde aurretik. Kulturaren kontzeptu jakin batek daukan zentzua eta esanahia ere ezagutu beharko genukeela dirudi. Izan ere, nekez jakingo dugu zertaz ari garen kulturen eta euskararen arteko harreman horietan, alde aurretik kulturari buruzko definizio-zertzelada batzuk aletu ezean.

*Etnokulturaz mintzo
garenean, beraz, estatu
modernoen aurretikako
kulturaz mintzo gara,
nahiz eta egungo mundua
etnokulturaz josita egon.
Baina harako hark esan
zuen bezala, Hegelek uste
dut, historiarik gabeko
herriak dira horiek
guztiak. Ez dute
historiaren barrena
arrastorik utziko.
Historia egingo bada,
hortaz, estatuaren jabe
egin beharko du nazioak,
estatuaren botereak
zabaltzen diolako
komunitate etnikoari
gizarte nazionala izateko
aukera eta ohorea.*

berriak, botere nazionalaren eskutik kudeatuak, nazio-kontzientziaren identifikazio-mekanismoak barneratuko ditu herritarren nortasunean. Eta nazio eraikuntzaren prozesu horretan oinarritzko zutabeak izango dira hizkuntza eta kultura: izan ere, kultura nazionalaren ezaugarri nagusia hizkuntza izango da hizkuntza hori jatorrizko etnohizkuntza den herrialdeetan behinik behin.

Beraz, nazio-estatuaren logika gailendu ahala, munduaren egiturak inperio zaharren eta sistema feudalaren izaera galdu egingo du eta etno-nazionalismoaren historia jarriko da abian. Bai, ongi esan dut: nazionalismo modernoaren sisteman elementu etnikoak aurkituko ditugu funtzio berri bat betetzen. Nazio-hizkuntza, hizkuntza etniko jakin baten garapen historikoa izango da, komunitate etnikoen oinordeko izango dira alde horretatik hizkuntza modernook. Ez dago erabateko etenik: iraultzak iraultza eta matxinadak matxinada, *continuum* baten arrastoa aurkituko dugu estatu nazional berrien baitan aurretikako tradizio-tasunei dagokienez. Hartara, aurretikako etnohizkuntza zaharra izango da nazio-estatu modernoaren hizkuntza hegemoniko zaharberritua. Hizkuntza batua, estandarra, kultura idatzirako doitua eta gaitua.

Horregatik guztiagatik, nazio-kulturaren ezaugarria izango du egun bizi gaituen gizarte nazional honek. Gure gizartea ez da gizarte ez-nazionala, ezin delako izan hain zuzen: nekez izan liteke halakorik historia nazional baten baitan eratu den gizarte-eredua, gizarte jardunaren eremua nazioka eratua dagoen mundu honetan. Egungo globalizazioaren joerak ez du oraingoz funts-funtsean egoera hau aldatu: horiek horrela, estatuaren babesa duten nazio-identitateen krisia ez da diskurtso interesatu batek dioenaren neurrikoa. Frantziak, demagun, kultura anglofonoaren aurkako neurriak hartu baldin baditu, ez da izan barneko nazio-identitatea mehatxupean ikusi duelako, baizik eta bere nazionalismoa inperialista izan delako beti. Eta orain, dirudienez, inperialismo hori ezartzeko eragin-indarra ahuldu egin zaio. Hori da guztia, nire iritziz, eta ez, jakina, sinestarazi nahi digutena, globalizazioaren mamua amu bihurtuta.

Hori eta horrenbestez, kultura-sistema osoaren barruko dimentsio bat kultura nazionalaren izaeraz mamitua eta ezaugarritua dago, eta kultura nazional horren errealitatea kontuan hartu gabe, ez dago hizkuntzen zoriaz hitz egiterik. Ezta euskararen zoriaz ere, noski. Euskararen patua ere, munduko gainerako hizkuntzena bezalaxe, marraztu dugun nazioarteko testuinguru horren argitan aztertu behar baikenuke. Testuinguru hori kontuan hartu gabe, izan ere, prozesu historiko modernoaren baitan hizkuntzaren eta kulturaren gorabeherak hauteman gabe, nekez atzemango ditugu euskarak geure herriko kultura-ereduekin izan ditzakeen hartu-emanak. Ez gara kasu berezi bat inondik ere: moduren batean edo bestean etnozidioaren politika inperialistak mendeen harrapatu ditu munduko hizkuntza eta kultura-herri gehien-gehienak, eta axaleko aldeak baizik ez dira geure arteko aldeak. Genozidioaren zantzu argirik naba-

ritzen ez dugunean, etnozidioaren alienazioa hautemango baitugu kasu bakoitzaren gaineko azala urratzen hasi orduko.

EUSKAL HERRIKO KULTURAK

Lehenik eta behin, bi eratako kulturak dauzkagu Euskal Herrian, eta horien arteko aldeaz mintzatu beste biderik ez daukagu gai honetan. Euskal Herrian, munduko herri-komunitate gehienetan bezalatsu, jatorrizko kultura bat dago eta jatorrizkoak eta berezkoak ez diren beste bi. Euskal kultura edo euskararen kultura dugu herri honen berezko kultura, euskarra jatorrizko hizkuntza dugun zentzu berberean. Euskal Herria izeneko eta izaneko herriak hizkuntza baten jardun sozialari zor dio bere izena eta izana; hots, herri euskaldunaren jardun sozial historikoaren harian sortu da hemen herri-identitate jakin bat duen nazio-komunitatea. Kultura espainola eta frantsesa, berriz, ez dira hemengoak jatorriz, ez dira herri honen berezko kulturak, botere-harreman batzuen ondorioz espainiar eta frantses estatuen historiak hemen ezarri dituzten bi kultura baizik. Bi kultura hauen eraginez ekoitzitako sorkariak, hurrenez hurren, Espainia eta Frantzia izeneko herriak dira, ez Euskal Herria. Espainierak ezin du sortu herri euskaldunik; frantsesak beste horrenbeste. Bi hizkuntza hauek, eta hizkuntza hauen jardunak sortutako kultura-identitateek herri euskaldunaren eta euskal kulturaren hondamendia ekarri dute gure herrira.

Historian atzera jota ere, oso atzera jota ere, bi estatu nazional horien historiarekin loturik datozen kulturak dira kultura espainola eta frantsesa, ez aurretikakoak. Hasieran estatu dinastiko eta absolutuen eskuak gidatuak eta aro modernoan estatu modernoaren konstituzioak bideratuak. Nolanahi ere, orduan bezala orain ere indarra eta bortizkeria izan dute beti azken euskarri, oraingo egoera legitimatu honetara heldu aurretik. Orain ez zaie halakorik antzematen itxuraz behintzat, bertakotuak baitaude zeharo, baina odolaren gorria ikusten da kultura horien historia bortitzean.

Horiek horrela, jatorrizko euskal hizkuntzak zer-nolako hartu-emanak izan ditzake bi kultura arrotz horiekin? Simetrian eta orekan oinarrituak, agian? Kulturen arteko osagarritasun emankorrean funtsatuak, beharbada? Kultura aniztasunaren askotarikotasunean eratuak, apika? Hala egoera demokratiko horien beste ertzean finkatzen dira euskarak kultura alienagarri horiekin dauzkan hartu-emanak? Alegia, ez ote da asimilazioaren logikak itota eta irentsita bizi herri euskalduna? Hau da, herri euskaldunak ba ote dauka eskurik bere hizkuntzaren kulturaren bizitza soziala eratzeko?

Euskal Herrian bi kultura arrotz horiek baizik ez dute funtzionatzen nazio-kultura gisa. Euskaldunon aberria Euskal Herria izango da, baina euskaldunok ez daukagu nazio-kultura eraginkorrik. Egungo euskal kulturak ez dauka nazio-kultura orok bere baitan izan behar dituen ezaugarri-tasunak. Pentsatu izan dugu egungo euskal kultura, kultura moder-

Nazionalismo modernoaren sisteman elementu etnikoak aurkituko ditugu funtzio berri bat betetzen. Nazio-hizkuntza, hizkuntza etniko jakin baten garapen historikoa izango da, komunitate etnikoen oinordeko izango dira alde horretatik hizkuntza modernook.

Frantziak, demagun, kultura anglofonoaren aurkako neurriak hartu baldin baditu, ez da izan barneko nazio-identitatea mehatxupean ikusi duelako, baizik eta bere nazionalismoa inperialista izan delako beti.

Euskal Herrian, munduko herri-komunitate gehienetan bezalatsu, jatorrizko kultura bat dago eta jatorrizkoak eta berezkoak ez diren beste bi. Euskal kultura edo euskararen kultura dugu herri honen berezko kultura, euskara jatorrizko hizkuntza dugun zentzu berberean. Euskal Herria izeneko eta izaneko herriak hizkuntza baten jardun sozialari zor dio bere izena eta izana.

noaren ezaugarriean taxutua dagoela, gainerako nazio-kulturen pareko dela. Arrazoibide horren agergerri, euskal literatura edo musika edo beste kultur alorren bat aipatuko dugu datu gisa. Eta ez gara ohartzen nazio-kulturaren ezaugarria ez dela berez kultura-esparrutzat zentzu hertsian hartzen dugun espazio murriz hori. Nazio-kulturaren kontzeptuak, izan ere, gizartearen eremu eta jardun guztiak besarkatzen ditu bere baitan.

Kultura espainola edo frantsesa, nazio-kultura diren bezainbatean, ezin dira literaturara, zinemara, arte-eremura, eta antzeko jardun estetiko soiletara mugatu. Nazio-kulturaren historia nazionalismoaren historia bera da: izan ere, azken honek taxutu zuen eta taxutzen du gaur egun oraindik nazio-kulturaren izaera eta egitekoa. Nazio eraikuntzak nazio bat eraikiko badu estatuaren laguntzari esker, hizkuntza bat behar du eraikuntza horretarako, salbuespenak salbuespen —Suitza eta besteren bat—. Hizkuntza nazional horretan eskolatu eta alfabetatutako herritarrek behar ditu gizarte nazional modernoak bere barneko jardun ekonomiko, sozial eta kulturala ehuntzeko eta eratzeko. Hizkuntza idatziaren kultura izango da kultura nazionalaren ezaugarri nagusi bat, munduaren alde honetan behintzat. Kultura nazionalaren sorkuntza eta egitura garatzeko, beraz, nazio-identitatearen oinarritzko tasunak partekatu behar dira: horrela, ez dago nazio-kulturarik hizkuntza estandar eta batu bat partekatu gabe, ez dago nazio-kulturarik historia eta lurralde bat partekatu gabe, ez dago nazio-kulturarik, halaber, gizarte nazionalaren jardun ekonomikoak, politikoak, juridikoak eta ideologikoak partekatu gabe. Labur zurrean: nazio-kultura da, beraz, nazio izatearen oinarritzko baldintza, ez baitako nazio kulturalik gabeko nazio politikorik edo estaturik.

Kulturaren fenomeno horren nazionalizatua baldin badago, nazio eraikuntzaren dialektika historikoak horrela baldintzatu eta mugatu delako, zer-nolako egoeratan daude, batetik, euskara, eta, bestetik, euskal kultura?

EUSKAL KULTURA EUSKARAZKO KULTURA DA

Espainolismoaren eta abertzaletasun erdaltzalearen ideologietan bazkatzten diren diskurtsoek ez dute amorerik emango auzi honetan. Tira, euskal literaturaren kasuan beharbada bai, abertzaletasun erdaldunak onar lezake agian, euskararik gabeko euskal literaturarik ez dagoela edo. Puntu horretan Koldo Mitxelena gauza batzuk idatzita utzi izanak ere izan lezake eraginik literaturaren adibide jakin honetan. Haatik, literaturaren jardunetik atera bezain azkar, zalantzaren dantza ez da nolana hikoia izango kulturaren gainerako adierazpideetan. Katalunian ere antzera dabil-tzala esango nuke: oraindik orain, Ramon Lull Institututuko zuzendariari, Jose Bargallo jaunari, Frankfurtoko liburu-azoka dela-eta, irakurri diodan hori iradokitzen baitit. Hona, hitzez hitz, bere esanak: “*Gaztelaniaz eta katalanez idazten duten idazleen debateak ez du inolako funts zientifikorik izan,*

garbi dagoelako kultura lurraldeak zehazten duela, eta literatura, berriz, hizkuntzak. Hori hemen eta mundu osoan”.

“Hori hemen mundu osoan”: ez dago gaizki, alajaina! Jar gaitezen, ba, urrutira gabe, Espainiara edo Frantziara begira hori horrela gertatzen den jakiteko. Demagun, Frantzia. Frantzian, teoria bitxi horren argitan frantses kulturaren mugatzaile nagusia ez litzateke hizkuntza frantsesa, lurraldea baizik. Bost axola nonbait kultura frantsesa zein hizkuntzatan hezuramitzen den. Ardura gutxi horrek frantsesei. Agian ingelesa bera izan liteke frantziar kulturaren hizkuntza. Zergatik ez? Kataluniar kulturaren hizkuntza espainiera izan baliteke, zergatik ez ba? Bihoa, hortaz, Bargallo jauna bere teoria bitxi horiekin frantsesengana frantses hizkuntzarik gabeko kultura frantsesa onartzeko prest ote dauden galdetzera. Ea zer erantzuten dioten.

Beraz, literatur jarduna hizkuntzaren arabera definitzen da, eta literatura katalana katalanez egindakoa da, baina, hara kontua: kulturaren izaera ez da irizpide horrekin berorrekin definitu behar, kulturaren zerizana lurraldearen baitan mugatzen delako nonbait. Hori Katalunian edo Euskal Herrian gertatuko da, tira, baina, jakina, ez nazio beregain batean. Hori kultur kolonizazioaren ajeak jotako herrialdeetan gertatuko da, ez “mundu osoan”. Beharbada, jakina, Bargallo jaunak ez daki, guk bezala, zer den nazio burujabe batean bizitzea, eta ez du onartu nahi kultura nazionalari dagokionez behintzat, nazio kolonizatu batean bizi dela, nahiz eta garapen eta bizi-maila ekonomiko garatua duen herri batekoa izan. Kolonizazioak, ordea, aurpegi asko ditu.

Hona, ba, kontua: kulturaren jardunean eta izanean hizkuntzak eskurik ez duela dirudi. Harrigarria benetan, gauza harrigarriak baldin bada: literatura euskalduna izango bada, euskaraz egindakoa izan behar duela onartzen dugu, baina kosta egiten zaigu gizarte-jardunaren gainerako ekintzetan beste horrenbeste onartzea. Zer arraio gertatzen zaigu, ordea? Agian, literaturgintzaren jardunean hizkuntzak eragin nabarmenagoa duelako onartzen ote dugu hizkuntzaren araberako definizio hori? Eta gizarte-jardunaren gainerako gauzetan hizkuntzak ez al dauka bada eskurik ekintza horien izaera ezaugarritzeko? Gauzak ez al dira orduan gauza eginak ez ezik, gauza pentsatuak eta gauza esanak? Are gehiago: gauza eginak ez ote dira ba hizkuntzaren bitartez eta bitartekotzaz egindako gauzak? Hizketa edo hizkuntzaren jarduna ez ote da ba gizarte-ekintza berez eta izaitez?, eta komunikazio-jardun horren eraginak ez ote ditu ba gainerako gizarte ekintzak artikulatzen? Nik uste nuen gizarte-errealitatea, errealitate kulturala eta linguistikoa ere bazela aldi berean, giza eta gizarte-errealitate oro errealitate esana, pentsatua eta irudikatua ere badelako.

Pragmatikaren irakaspenak gogoan, gure tesiaren logikak ezin du ulertu hizkuntzaren jardunik gabeko gizarte-ekintzarik. Ezin du ulertu hizkuntzaren identitate-jardunik gabeko kulturarik. Are gehiago: ezta herri edo nazio baten geografia fisikorik ere. Ekolinguistikaren irakaspe-

Euskal Herrian bi kultura arrotz horiek baizik ez dute funtzionatzen nazio-kultura gisa. Euskaldunon aberria Euskal Herria izango da, baina euskaldunok ez daukagu nazio-kultura eraginkorrik. Egungo euskal kulturak ez dauka nazio-kultura orok bere baitan izan behar dituen ezaugarri-tasunak.

Nazio eraikuntzak nazio bat eraikiko badu estatuaren laguntzari esker, hizkuntza bat behar du eraikuntza horretarako, salbuespenak salbuespen.

Nazio-kultura da, beraz, nazio izatearen oinarrizko baldintza, ez baitako nazio kulturalik gabeko nazio politikorik edo estaturik.

*Literatura euskalduna
izango bada, euskaraz
egindakoa izan behar
duela onartzen dugu,
baina kostatzen zaigu
gizarte-jardunaren
gainerako ekintzetan
beste horrenbeste
onartzea.*

*Ekolinguistikaren
irakaspenak argigarriak
dira: ekosistemaren
barruko elkarreraginean
hizkuntzak ingurunean
eragiten du eta
inguruneak hizkuntzan.*

nak argigarriak dira zentzu horretan: ekosistemaren barruko elkarreraginean hizkuntzak ingurunean eragiten du eta inguruneak hizkuntzan. Elkarrekiko eragin-trukean lurraldearen interpretazioa hizkuntzaren jardunak ezaugarritzen du, eta lurraldearen itxura fisikoak hizkuntzaren kategoritze-zentzua ezaugarritzen du. Hiztegian, adibidez, aski nabarmena da fenomeno hori. Baina hemen benetan interesgarria zera da, izatez: euskaldunaren lurralde-irudia ez dela erdaldunaren lurralde-kontzeptu berbera. Hizkuntza bakoitzaren tasunak eta konnotazioak tarteko, errealitate fisiko edo estatiko hori ez dela era berebean hautematen.

Euskal Herria ez da euskal herri berbera euskaldun gisa bizi denarentzat edo erdal munduaren erreferentzia-eremuan bizi denarentzat. Lehenengoak, euskaldunak, bere jaioterriarekin dituen harremanak euskaldun izatearen tradizio-ildo jakinetan interpretatzen eta sentitzen ditu; bigarrenak, erdaldunak, aldiz, beste tradizio baten arabera dihardu.

Hizkuntzaren eragina ez da beraz hizkuntzaren eskua artez eta zuzen ikusten dugun ekintza-gauza —demagun, literaturan— haietan bakarrik txertatzen eta ezaugarritzen. Gizartearen antolamendu guztia dago hizkuntzaren jardunak zeharkatua eta ezaugarritua. Gure gizarteredua, besteak beste, gizarte nazionala dela onartzen badugu, nazio-identitate horren muineko eragile nagusia hizkuntzaren bitartekaritzan datzala onartu beharko genuke. Hizkuntzaren funtzioa ez delako jadanik sortua dagoen mundu sozialaren komunikazio-tresna izatera mugatzen. Jadanik sortua dagoen mundu hori, mundu sozial eta are mundu estetiko hori ere, mundu kulturala eta linguistikoa delako ezinbestez: mundua sortu eta eraiki egiten baita, eta prozesu horren baitan hizkuntzaren esku ezkutua beti dago presente. Besterik da noski esku hori ikusten dugun ala ez; nekez, oso nekez ikus baitezakegu hizkuntzari buruz ditugun tresna-definizio murrizgarriak nagusi ditugun bitartean.

Esanak esan, kulturaren izaera ezin da lurraldearen arabera bakarrik definitu, baldin eta gizarte nazionalaren ezaugarri nagusi bat ezkutuan gorde nahi ez baldin badugu behintzat. Izan ere, lurraldea, besteak beste, nazio-lurralde ere bai baitira izatez eta jardunez, eta nazio-identitatearen izaera etnonazionala erauzten dion lurraldetasunaren definizioari, ezin diogu zuzen eta egoki iritzi. Jakina, kulturgintzaren dinamika lurralde baten baitan gauzatzen da, hori bistakoa ga. Ez zegoen esan beharrik ere. Baina ez da zilegi zera esan gabe uztea: kulturgintzaren dimentsio bat egungo munduan nazio-hizkuntzari darion ezaugarria dela eta, hori eta horrenbestez, Katalunian edo Euskal Herrian, kulturaren izaera definitzeko unean ezin dugula hizkuntza nazionalaren ezaugarria ezabatu.

Euskal kultura herri honen jatorrizko eta berezko hizkuntzan baizik ezin da hezurmamitu. Ez da literaturgintzara mugatzen den kontua soilik. Nazionalismoaren aroan, egun bizi gaituen aroan, kultura-sistema osoaren izari bat nazio-kulturari dagokio nahitaez, eta dimentsio horren barruan sartzen dira nazio-identitatearen egitura taxutzen duten oina-

rrizko lau tasunak: hizkuntza, historia, lurraldea eta kulturaren izari nazionala. Hauen arteko elkarreraginak sortzen du nazio kulturala, nazio politikoak edo estatuak bere gizarte nazionala funtsatzeko noraezoko duen aurre baldintza baita. Nazio kultural honetan datza nazio politikoaren humusa.

Kultura oro hizkuntzaren batean edo bestean oratzen da. Ore horrek, gauza jakina denez, osagai asko izango ditu bere baitan, ideologia edo diskurtso orok dituen moduan. Nolanahi ere, kulturaren ezaugarria ez da soil-soilik ore horrek izan ditzakeen edukien kontua, hizkuntzaren eragina alde batera utzita. Hizkuntza bera ere kultura-identitate horren baitako elementua eta jarduna bihurtzen baita naziotasunaren arabera eraturako mundu honetan. Euskararen jarduna ez da, beraz, kulturaz at dagoen izatea edo izaera, kultura bera euskal kultura bihurtzen duen tasuna baizik. Hizkuntza ez dago kulturagintzaren jardunetik landa.

Euskal Herriko kulturen artean kultura batek baizik ez du partekatzeko euskara, eta kultura horixe da euskal kultura. Kultura espainolak beste horrenbeste egiten du bere hizkuntzarekin Hegoaldean, eta frantsesak Iparraldean. Bi erdara hauei dagozkien kulturak, bi nazio-hizkuntza hauetan gauzatzen diren kulturak, kultura espainola eta frantsesa dira. Euskal Herrian daude, bai, baina, arestian esan dugun moduan, berez hizkuntzarekin eta kulturaren zentzu hertsian zerikusirik ez duten auziengatik daude hemen. Dakigunez, Frantzian ez dago kultura espainolik hemen dagoen eran, eta alderantziz berdinean gertatzen da. Espainian eta Frantzian ez da gurean gertatzen denik gertatzen. Eta, jakina, ondo asko dakigu zergatik den hori horrela: bi nazio horiek beregainak dira, ez dute beste nazio bateko kulturarik eta hizkuntzarik zilegizten eta ofizialtzen beren estatu-lurralde politikoan.

Guk zergatik ez dugu beste horrenbeste egiten? Bistakoa denez, gu ez gara nazio beregaina. Ez dugu boteririk geure identitate eta duintasun nazionala geure hizkuntzan eta kulturaren bizi ahal izateko. Euskal kultura ez da nazio-kultura bere jatorrizko herrian. Herri kolonizatua gara, eta herri kolonizatua izateak dituen makurkeria guztien jabe. Guztiarekin ere, eta gezurra badirudi ere, herri honek ez dauka kulturalki eta linguistikoki kolonizatua izatearen kontzientziarik, eta, dudarik gabe, gabezia horrek —nazio-alienazio horrek, zehazki esate aldera— galduko du betiko herri hau ezer harrigarrikeri gertatu ezean. Oraingoan, ordea, gure zoritxarrerako, herri honen zerumugan ez dugu ezer harrigarrikeri antzematen.■

Hizkuntza, historia, lurraldea eta kulturaren izari nazionala. Hauen arteko elkarreraginak sortzen du nazio kulturala.

Euskararen jarduna ez da, beraz, kulturaz at dagoen izatea edo izaera, kultura bera euskal kultura bihurtzen duen tasuna baizik.